

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Lierni Lizaso
Cristina Sanchez
Eduardo Ubieta
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

22/16 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko abenduaren 13ko eginiko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Lan-legepeko Hezkuntza langileak enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten duen Agindu-Proiektuari buruzko irizpena**

I.- AURREKARIAK

Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen ditu iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdietan jarraitu beharreko irizpideak. Hala, ezartzen du administrazio publikoek, salbuespen gisa eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 61.6 eta 7 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez deituko dituztela, 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako etenik gabe okupatuta egondako plazak. Aurreikuspen horri lege beraren zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoa gehitu behar zaio, eta, horrez gain, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze-prozesuek beren deialdietan sartuko dituzte izaera estrukturaleko lanpostu hutsak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen izaera horretako harremana duten langileek aldi baterako betetzen dituztenak.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 61.7 artikulua ezartzen du merezimenduak baloratzeko lehiaketa erabil daitekeela lan-kontratudun langile finkoak hautatzeko sistema gisa.

Kasu honetan, hautaketa-sistemaren hautaketa (merezimendu-lehiaketa) enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean agindutakoaren ondorio da.

II EDUKIA

Agindu-proiektuak 3 artikulua, azken xedapen bat eta 7 eranskin ditu.

Lehenengo artikulua merezimendu-lehiaketa deitzen du, hezkuntza-laguntzako langileen, gizarte-langileen, fisioterapeuta, Okupazio-terapeuta, material transkribatzaile eta-egokitzailen eta zeinu-hizkuntzako interpreteen kategorietan lan-kontratu finkodun langile izateko.

Lehiaketaren oinarriak onartu ditu 2. artikulua, eta I. eranskinean jaso.

3. artikulua deialdiko kategorietan kontuan hartu beharreko merezimenduen baremoak onartzen ditu, II. eranskinetik VII. eranskinera bitartean jasotzen direnak.

Azken xedapena berraztertze errekurtsoei buruzkoa da

I eranskinak kategoria guztietarako oinarri komunak jasotzen ditu, 8 ataletan banatuta. 1. oinarriak xedea eta deitutako plazak jasotzen ditu.

Gainerako ataletan honako alderdi hauek ezartzen dira:.

2. - Izangaien betekizun orokorrak eta espezifikokoak.
- 3.- Eskabideak aurkezteko prozedurari dagokio.
- 4.- Hautagaiak onartzeari eta erreklamazioei buruzkoa da.
- 5.- Hautaketa-organoak
- 6.- Puntuazioa esleitzea eta puntuazioak argitaratzea
- 7.- Hautaketa-prozesua gainditzea
- 8.- Dokumentuak aurkeztea
- 9.- Probaldia
- 10.- Prozesuak amaitzean ez dela lan-poltsarik sortuko ezartzen du.
- 11.- Datu pertsonalen tratamendua.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Agindu-proiektu horrek iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu bat ezartzen du, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen modu jarraituan aldi baterako okupatutako plazetara mugatuta.

Guztira, 520 plaza atera dira merezimendu-lehiaketara; horietatik 57k ez dute hizkuntza-eskakizunik, eta 463k HLEA dute; horietatik 37 desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta daude.

Hurrengo taulan, lanpostuak kategoriaren eta hizkuntza-eskakizunaren arabera jasotzen dira.

Jomuga	Guztira	HE gabe		HLEA	
		A	B	A	B
Hezkuntza laguntzarako espezialista	476	49	4	393	30
Fisioterapeuta	13			12	1
Okupazio-terapeuta	10			9	1
Material transkribatzailea eta egokitzzailea	4			4	
Zeinu hizkuntzako interpretea	14	1		12	1
Gizarte langilea	3	3		-	-
Total	520	53	4	430	33

A. Txanda orokorra

B. Desgaitasuna duten pertsonentzako gordetako plazak

Kontuan hartuta Kontseiluak 22/02 Irizpenean¹ adierazi dituen langile horien LPZko datuak, ikusten dugu ezegonkortasuna handia zela, eta, beraz, positibotzat jotzen dugu prozesu hori egitea, uste baitugu lagungarria izango dela haien baldintzak hobetzeko eta, ondorioz, haien lanaren kalitatean eragina izango duela.

Jomugak	Egungo LZP	Aldaketa
Fisioterapeuta	32	33
Gizarte langilea (Desagertzeaz)	3	3
Hezkuntza laguntzarako espezialista	735	783
Okupazio-terapeuta	10	10
Material transkribatzailea eta egokitzzailea	4	4
Zeinu hizkuntzako interpretea	5	6
LPZ organikoa guztira	789	839

Gainera, sektore horretan egindako azken enplegu-eskaintza 2007koa da hezkuntza-laguntzako espezialistentzat. Kontseiluak 07/18 Irizpenean eman zuen horren berri, eta agindu bidez argitaratu zen (2008ko maiatzaren 19ko EHAA).

¹ Irizpena, Dekretu proiektuari, zeinaren bidez bosgarrenez aldatzen baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratudun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen 186/2017, uztailaren 4ko Dekretua



Kontseiluak positiboki baloratzen du enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu hori; hala ere, arauan egutegi baten falta sumatzen du, prozesu osoaren datak zehaztuta.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko abenduaren 13an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA